

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

29/2026 Foru Agindua, apirilaren 15ekoa, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko enklabeari dirulaguntzak emateko deialdia onesten duena, 2026an euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko

Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak proposatzen du 2026an euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko dirulaguntzen deialdia onestea, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei (Vitoria-Gasteizko Kuadrillari izan ezik) eta Trebiñuko enklabeari zuzendua, 2026ko ekitaldirako, 91.000,00 euroko zuzkidurarekin.

Ikusi da Euskararen Foru Zerbitzuaren txostena.

Horrenbestez, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatu naizenez, nire dagozkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdia, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko 2026an. Deialdi hori foru agindu honi erantsi zaio eranskin gisa, deialdiaren I. eranskinetik IV. eranskinera, eta 91.000,00 euroko zuzkidura izango du 2026ko ekitaldian.

Foru Agindu horretan ezarritakoarekin bat etorriz, deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak arautzen du, zeinak Diputatu Nagusiaren Sailaren lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen.

Bigarrena. Deialdiaren pean emandako dirulaguntzak "25201. G/335251/46290250 Udal eta kuadrillen dirulaguntzak. Euskarazko jarduerak" Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko aurrekontu 91.000,00 euroko partidaren kargura ordainduko dira.

Hirugarrena. Organo eskudunak, Balorazio Batzordeak proposatuta, kasuan kasuko ebazpena emango du gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epealdi horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Laugarrena. Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematen zaio erabaki hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko behar diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabete igaro baino lehen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 15a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatua
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

ERANSKINA

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta Trebiñuko enklabeari dirulaguntzak emateko deialdia, 2026an euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko

Lehenengoa.- Xedea eta helburua.

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, xede nagusia izanik euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatzea, garatzea eta gauzatzea 2026an, Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan (Vitoria - Gasteizko kuadrilla izan ezik) eta Trebiñuko enklabean, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan xedatutakoaren esparruan (2020ko uztailaren 27ko ALHAO, 84. zenbakia), zeinak Diputatu Nagusiaren sailaren dirulaguntzak lehia araubidean emateko oinarri orokorrak onetsi baitzituen.

Beraz, laguntza hauen xede nagusia da gizarte programa eta/edo jardueri laguntzak ematea, honetarako: Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan (Vitoria- Gasteizkoan izan ezik) eta Trebiñuko enklabean euskal hiztunak eta horien sareak aktibatzeke, eta euskaraz bizitzeko aukerak bermatzeko baldintzak sortzen jarraitzeko, "Arabako Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan (2025-2029)" jasotzen denari jarraituz.

Bigarrena.- Aurrekontu egozpena.

Arabako Foru Aldundiaren 2026rako gastu-aurrekontuaren proiektuan 250.000,00 euroko 25201.G/335251/46290250 aurrekontu-partida dago: "Udal eta kuadrillen dirulaguntzak. Euskarazko jarduerak". Horietatik 91.000,00 euro honako deialdi hau finantzatzeko erabiliko dira.

Alde horretatik, dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu 91.000,00 euroko dotazioa Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko esandako partidatik: 25201.G/335251/46290250 "Udal eta kuadrillen dirulaguntzak. Euskarazko jarduerak".

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak.

Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, Vitoria -Gasteizko Kuadrilla izan ezik, eta, Trebiñuko enklabeari dagokionez, Trebiñuko Konderriko Udala edo Argantzongo Udala.

Deialditik baztertuta geratzen dira 23/2020 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian aipatzen diren egoeretan dauden erakundeak (23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen; ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa).

Laugarrena. - Diruz lagundu daitezkeen jarduerak edo kanpainak.

Diruz lagundu daitezkeen jardueren eta/edo kanpainen helburu espezifiko eta nabarmena izango da pertsonen arteko gizarte interakzioa, euskara komunikazio bidetzat hartuta, bai eta euskal hiztunak aktibatzea ere.

Diruz lagundu ahal izango dira euskararen bidez 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean egiten diren sozializazio jarduerak eta/edo kanpainak.

Bosgarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduera eta/edo kanpainetako zuzeneko gastuak.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari eta/edo justifikatzeari dagokienez, gastu hauek:

- a) Dirulaguntzetatik kanpo geratzen dira irakasleen garraio gastuak, bai eta onuradunek, barne funtzionamenduan, beren langileentzat eta lan orduetan sustatzen dituztenak ere.
- b) Erakundea mantendu eta martxan jartzeko gastu orokorrak.
- c) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
- d) Ordezkaritza, kudeaketa, protokolo, itzulpen, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.
- e) Inbertsio gastu direnak.

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Euskararen Foru Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute. Aldaketa horiek justifikatuta egon beharko dute, eta ez dute ekarriko inola ere proiektuaren aldaketa nabarmenik. Bestalde, diruz lagundutako gastuen aldean ezarritakoa bete beharko dute.

Dirulaguntza deialdi honen bidez diruz lagun daitezkeen jarduerak edo kanpainak aldatu ahal izango dira gauzatzeko epea bukatu aurretik, une bakoitzean hartu beharreko neurrien arabera. Horretarako, erakunde onuradunak Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzara bidali beharko du eskaera, eta hark berariaz ebatziko du.

Diruz lagundutako jarduera edo kanpainekin zuzeneko lotura duten zerbitzuak (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak) ematen dituzten pertsona guztiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:

- Batxilergoa euskaraz ikasi izana edo B2 maila egiaztatu, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edo baliokidea, eta
- Euskararen bidez sozializatzeko ikastaro bat egin izana, jarduera edo kanpaina hasi aurretik.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko du igorritako dokumentu guztietan emandako dirulaguntza egitean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Lege horren babesean, euskal herri-aginteez betebeharrak ezarriko dituzte emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, mota guztietako hizkera eta irudietan erabilera ez-sexista egiteaz gainera, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak ez betetzeak dakartzan ondorioez gainera.

Seigarrena.- Eskaerak aurkeztea.

1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskara Zerbitzura bidali behar dira, I. eranskinean jasotzen den ereduari lotuta.

2. Eskaerekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

A) Administrazio agiriak. Eskaerekin batera, honako hauek egiaztatzen dituen dokumentu bat aurkeztu beharko da:

- Erakundearen organo eskudunaren erabakia, baimentzen duena eskabidea aurkeztea eta gastua partez finantzatzea.
- Hala badagokio, diruz lagundutako jarduera edo kanpainekin (udalekuak, joko txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak) zuzenean lotutako zerbitzuak emango dituzten pertsona guztiek honako konpromiso hau hartzen dutela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena:
 - Batxilergoa euskaraz ikasi izana edo B2 maila egiaztatu, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edo baliokidea.
 - Euskararen bidez sozializatzeko ikastaro bat egin izana, jarduera edo kanpaina hasi aurretik.
- Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, erakunde eskatzaileak behartuta daude eskaera telematikoki aurkeztera, egoitza elektronikoan erabilgarri dagoen berriazko izapidearen bitartez.

4. Ematen diren kopiek dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik balioko dute. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

Zazpigarrena.- Eskaerak aurkezteko epealdia.

Eskaerak aurkezteko epealdia hogeitun egun baliodunekoa izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena.- Prozeduraren instrukzioa.

Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko Euskararen Foru Zerbitzuak dauka.

Bederatzigarrena.- Balioespen irizpideak eta gehieneko zenbatekoa jarduera eta/edo kanpaina bakoitzeko.

1. Eskaerak balioesteko irizpide hauek aplikatuko dira:

Aurkeztutako proiektuak balioesteko, irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Onartutako aurrekontua: 50 puntu, gehienez.
 - a. 10.000,00 euro baino gehiago: 50 puntu.
 - b. 10.000,00 euro baino gutxiago: 25 puntu.
2. Erakunde onuradunaren euskararen erabilera sustatzea: 50 puntu, gehienez.
 - a. Kanpo sustapena: 50 puntu
 - b. Barne sustapena: 25 puntu

Barne sustapentzat hartzen da jarduerak edo kanpainak erakunde onuradunaren administrazioari zuzenduta badago eta kanpo sustapentzat gizarte sustapena egiten denean erakunde onuradunaren.

Aurreko apartatuan ezarritako irizpide bakoitzari dagokion puntuazioa balorazio batzordeak horretarako sortutako haztapan taula batean jasoko da. Ez dira kontuan hartuko 50 puntu lortzen ez dituzten eskaerak.

Dirulaguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da.

Puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatzearen emaitza izango da ateratzen den laguntza, baldin eta zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta, ez badu gairatzen jardueraren kostua.

Jarduerari edo kanpainari eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu ondoren, horietakoren batean soberakinik badago, balorazio batzordeak soberakin hori gainerakoetara bideratzea proposatu ahal izango du.

Gehieneko zenbatekoa. Kuadrilla bakoitzari gehienez 14.000,00 euroko dirulaguntza bakarra emango zaio. Trebiñuko enklabeari dagokionez, gehienez ere 7.000,00 euroko dirulaguntza bakarra emango zaio bi udaletako bati.

Onartutako aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko 100eraino lagundu ahal izango da diruz.

Hamargarrena.- Dirulaguntzari uko egitea eta ukapena jakinarazteko epealdia.

Diruz lagundutako jarduera eta/edo kanpainaren bat egiteari uko egitea erabaki duten laguntzen erakunde onuradunek, hartarako dituzten arrazoiak gorabehera, lehenbailehen jakinaraziko dute hari uko egiten diotela, alegia, dakiten bezain laster.

Aurreko apartatuan aipatutako uko egiteak horretarako gaitutako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira.

Hamaikagarrena.- Ebazpena.

1.- Eskaerak Balioespen Batzordeak aztertuko ditu. Batzorde horren burua Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Euskararen Foru Zerbitzuko burua eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkaria Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua izango da; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez.

Euskara Foru Zerbitzuak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen epeetan.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehenetsia ezarriko du.

2.- Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3.- Organo eskudunak, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita, bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen. Epealdi horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

4.- Dirulaguntzak emateko ebazpenean zehaztu beharko da zer erakundek jasoko duten dirulaguntza, onartutako oinarizko aurrekontuak, eta gainerako eskaerak, ezetsi egin direnak.

5.- Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zenbatekoa emateko baldintzak ere.

6.- Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

7.- Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatzen duenari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aurretik, jakinarazpenaren biharamunetik bi hilabeteko epealdian, egintza ezesteko eskatu ahal izango da. Euskara Foru Zerbitzuari egin beharko zaio idazki arrazoituaren bidez. Errekerimendua jasotzen denetik hilabete pasatutakoan erantzunik eman ezean, ezetsitzat joko da (29/1998 Legea, 44. artikulua). Errekerimendua eginez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko epealdia berariazko erabakiaren berriematea jaso edo errekerimendua ezetsitzat jo eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Hamabigarrena.- Ematen diren dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea.

1.- Dirulaguntzaren abonua bi zatitan ordainduko da: lehenengo deialdia ebatzi ondoren aurrerakin izaeraz eta ebatzitako dirulaguntzaren ehuneko 80 izango da, eta gainerakoa, aurrerakina justifikatu ondoren ordainduko da. Justifikazioa 2026ko abenduaren 15a aurretik (egun hori barne) aurkeztuko da egindako eta benetan ordaindutako gastua justifikatzen duten fakturak aurkeztuta.

2027ko urtarrilaren 31ra arteko epean, egindako gastua eta dirulaguntza justifikatzen duten gastuen ordainketa justifikatzen duten faktura guztien egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. 1.000,00 eurotik gorako gastuen ordainketa baino ez da egiaztatu beharko.

2.- Gastuak justifikatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu erratzua aurkeztuko dute, hain zuzen ere honako hauetan arautzen dena: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzarena, 28.1 eta 2. artikulua; 23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diputatuen Kontseiluarena, Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onartzen dituena, 6. oinarria (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa). Dirulaguntza eskatzen den programa bakoitzeko IV. eranskin bat bete beharko da.

Justifikazio kontu erratua IV. eranskinak eta dokumentazio honek osatuko dute:

- a) Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena (III. eranskina).
- b) Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, bidali den data eta, behar denean, ordainketaren data.
- c) Banaka edo multzoka gastu kontzeptu bererako 1.000,00 euro (BEZa aparte) gainditzen direnean baino ez da aurkeztu beharko faktura edo balio bereko agiria. Horrekin batera ordaindu izanaren frogagiria ere aurkeztu beharko da.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- e) Behar denean, aplikatu ez diren gerakinak eta horietatik sortutako interesak itzultzeko ordainketa gutuna.
- f) Behar denean, azterlan, jarduera eta/edo kanpaina, argitalpen, iragarki kartel eta prestatutako dokumentazio idatzi edo grafiko guztien ale bana. Horiek guztiak bat etorri behar dute eskaeran aurkeztutako programarekin.
- g) Erakundearen erantzukizunpeko adierazpena, ezartzen duena aurkeztutako agiriak egiazkoak direla eta bat datozela jatorrizkoekin.

Organo izapidetzaileak eskatu ahal izango dizkie onuradunei egokitzen jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak, dirulaguntza bere xederako erabili dela behar bezala egiaztatu ahal izateko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Egilea: izena edo sozietatearen izena, eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea: izena edo sozietatearen izena, eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

PFEZen (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia betetzen ez duten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa, fakturatzeko betebeharren arloko arautegia kontuan hartuz.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Fakturak, egin duen enpresaren zigiluarekin, zenbatekoa ordainduta dagoela adierazten dutenak.
- Erakunde publikoaren P kontabilitateko agiriak.
- Ziuertagiria, honako datu hauek ematen dituen gutxienez: ordainketaren edo transferentziaren zenbatekoa, data eta onuraduna.
- Faktura egin duenak sinatutako edota zigilatutako ziuertagiria, honako datu hauek adierazten dituenak: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketaren data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar).

Fakturarik eragiten ez duten gastuei dagokienez, gastua egiaztatzen duten froga balioko agiriak.

3.- Jardueren eta/edo kanpainen artean udaleku, ludoteka, jolas txoko, gazteleku edo antzekoren batekin zerikusirik izanez gero, aurreko 2. apartatuan aipatutako dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Jarduera burutzeko ardura duen enpresaren memoria, euskararen erabileraren sustapen maila eta hiztunen aktibazioa zehaztuz.
- Egiazttagiria, ziurtatuz dinamizazioaren ardura duen monitoreak, gutxienez, euskaraz ikasi duela Batxilergoa, edo egiaztatu duela B2 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuaren arabera, edo baliokidea.
- Aisialdiaren dinamizazioaz arduratzen diren langileei (begiraleei) buruzko agiriak, jarduera hasi aurretik gutxienez sozializazio-ikastaro bat egin dutela ziurtatzen dutenak.
- Gauzatzeko toki erakundeak kontratatutako enpresaren ziuertagiria, jatorrizkoa, zigilatua eta izenpetua, zerbitzua emateko kontratatu diren monitoreen izen-abizenak zehaztuta.


Hamahirugarrena.- Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gaintzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.

Onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta laguntzarik eman dioten.

Hamalagarrena.- Publikotasuna.

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira komunikabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan. Eranskinak era digitalean eskuratu ahalko dira webgune honetan: <https://web.araba.eus/eu/> .

 araba álava foru aldundia diputación foral	Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko
	2026 Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO I)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

Eskaera zk. ■ Nº de Solicitud

Eskaera zk. ■ Nº Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

Eskaera data ■ Fecha de Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE (1)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo				Identifikazio zk. ■ Nº identificativo		Sexua ■ Sexo		
<input type="checkbox"/> IKZ NIF	<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social				Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País		Probintzia ■ Provincia		Udalerría ■ Municipio		Herria ■ Localidad		P. K. ■ C. P.
Telefona ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil		Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		

JAKINARAZPENAK □ NOTIFICACIONES

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailerek egoitza elektronikoko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinazpen elektronikoa eskuratu ahal izango dituzte hartzailerek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Erakunde eskatzaileak gailu elektronikoa bat eta/edo helbide elektronikoa bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:


Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Telefono mugikorra/Teléfono móvil:

Helbide elektronikoa/Dirección de correo electrónico:

	Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko 2026 Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO I)
---	---


Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ N° identificativo	Sexua ■ Sexo	
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena ■ Nombre			Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Protokolo zk. ■ N° protocolo			Data ■ Fecha	Notarioa ■ Notario	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		

 <p>foru aldundia diputación foral</p>	<p>Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko</p>
	<p>2026</p> <p>Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO I)</p>

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

Aurkeztutako aurrekontua ■ Presupuesto presentado

Sarrerak ■ Ingresos

Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado

Jardueraren edo kanpainaren izena Denominación de la actividad y/o campaña	Aurrekontua BEza barne Presupuesto IVA incluido	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Norberaren ekarpena Aportación propia	Bestelako sarrerak Otros ingresos

BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

Bankua ■ Banco

Sukurtsala ■ Sucursal

Kodea ■ Código


K/ Korrontea ■ C/ Corriente

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

Honakoak egiaztatzen dituen agiria ■ Documento que certifique

- **Erakundearen organo eskudunak, eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakia.**
El acuerdo del órgano competente de la entidad, autorizando la solicitud y financiación parcial del gasto.
- **Erantzukizupeko adierazpena, non jasoko baita, halakorik egonez gero, udaleku, jolas txoko edo horien antzeko jarduerak eta/edo kanpainak egingo dituzten langileek euskaraz ikasi dutela batxilergoa, edo B2 maila egiaztatu dutela, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuarekin bat etorritik, edo baliokidea.**
Declaración reponsable comprometiéndose a que el personal que vaya a realizar, en su caso, las actividades y/o campañas de ocio (colonias, rincones de juegos o similares), como mínimo deberá haber cursado el bachillerato en euskera o acredite un nivel B2, conforme al Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas o equivalente.
- **Zinpeko aitortpena, non jasoko baita udaleku, jolas txoko, gazteleku edo horien antzeko jarduerak eta/edo kanpainak egingo dituzten langileen % 100ek euskaraz sozializatze ikastaroa egiaztatu dutela, baldin eta halakorik badago.**
Declaración jurada comprometiéndose a que el 100 % del personal que vaya a realizar, en su caso, las actividades y/o campañas de ocio (colonias, rincones de juegos, gaztelekus u similares), deberá haber realizado un curso específico de socialización a través del euskera.
- **Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak (giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak).**
Recursos disponibles para gestionar las iniciativas presentadas (humanos, materiales e infraestructuras).

Jarduera eta/edo kanpaina bakoitzaren deskribapena (II. eranskina) ■ Descripción de cada actividad y/o campaña (Anexo II)

	<p>Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko</p> <p>2026</p> <p>Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO I)</p>
---	--

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonaliek Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuek ematen ditziguzun datuak Arabako Foru Aldundiarren titulatasuneko T95 BERTINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILAK IZAPIDETUTAKO DIRULAGUNTZAK KUDEATZEA fitxategian sartuko direla. Fitxategi horren tratamenduak Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira.

Zure datuen konfidentzialtasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo.

Datuak atzitzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu DBEOk aitortzen dituen eskubideez baliatzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5, PK 01001 Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://web.araba.eus/ertratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Oharra (2)

Zuk emandako banku-datuak Administrazio honen titulatasuneko Hirugarrenei eta Interesdunen Fitxategian erregistratuko dira, aurrekontua gauzatzeko eragiketak eta aurrekontuz kanpokoak izapidetzeko. Atal honetan betetako datuak ez dira tratatuko eta ez dira komunikatuko, baldin eta aurretik egindako ordainketen ondorioz alta emanda badaude berri kobratzeko aukeratu diren identifikazio- eta banku-datuak.

ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

Ordezkatzen dudun erakundea ez da erori Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 13.2 artikuluko eta Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12.2 artikuluko debekuetan, eta ez da zehatu Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren IV. tituluari alpatzen diren arau-hausteengatik.

Era berean, berdintasunaren arloko araudia betez, hau adierazten dut:

- Ez ordezkatzeko erakundea edo erakundeak, ez ordezkatzeko erakundearen gobernu- edo administrazio-organismoetako kide den pertsona juridiko edo erakunderen batek, aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuagatiko diskriminazio-ekintzak egiten dituenik, Euskadiko Berdintasunerako Legearen 24. artikuluan (2) xedatutakoaren arabera.

- Ez ordezkatzeko erakundea edo erakundeak, ez eta haren gobernu- edo administrazio-organismoetako kide den inork ere, ez duela zigor administratiborik edo penalik jaso abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginetik eratorritako sexu-bereizkeriagatik eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteengatik.

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el fichero T95 GESTIÓN DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la Gestión de las actividades de promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

Nota (2)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

DECLARACIÓN RESPONSABLE

La entidad a la que represento no incurre en ninguna de las prohibiciones del artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones y del artículo 12.2 de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava, ni ha sido sancionada por las infracciones a las que se refiere el Título IV de la Ley General de Subvenciones.

Asimismo, en cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

- Que ni la organización o asociación a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación por razón de sexo en los procesos de admisión o en su funcionamiento, de conformidad con lo estipulado en el artículo 24 (2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

- Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

**Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko (II. ERANSKINA)****2026**

Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO II)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

II. ERANSKINA ■ ANEXO II**Erakunde onuraduna ■ Entidad beneficiaria****Jardueraren eta/edo kanpainaren izenburua ■ Título de la actividad y/o programa****Jardueraren eta/edo kanpainaren xede nagusiak ■ Objetivos principales de la actividad y/o programa****Jardueraren eta/edo kanpainaren deskribapena ■ Descripción de la actividad y/o programa****Aurreikusitako parte hartzaile kopurua (generoka) ■ Número de participantes previstos (por género)****Euskararen erabilera eta hiztunen aktibazioa sustatzeko metodologia eta neurriak ■ Metodología y medidas para la promoción del uso del euskera y la activación de hablantes****Zeharkakotasuna sustatzeko aurreikusitako egintzak ■ Medidas previstas para el fomento de la transversalidad****Euskararen erabileran aurreikusitako eragina ■ Incidencia prevista en el uso del euskera****Ebaluaziorako neurriak ■ Medidas para la evaluación**

Orria ■ Hoja 1/2

**Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera
 sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta
 gauzatzeko (III. ERANSKINA)**
2026
 Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización,
 desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de
 promoción del uso del euskera (ANEXO III)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

III. ERANSKINA / ANEXO III**ZURIKETA MEMORIA ■ MEMORIA DE JUSTIFICACIÓN**

Erakunde arduradunaren izena ■ Entidad responsable

Jardueraren eta/edo kanpainaren izena ■ Nombre de la actividad y/o campaña

Deskribatu garaturiko jarduera eta/edo kanpaina ■ Describe la actividad y/o campaña

Helburuen lorpena / Balorazio laburra ■ Consecución de objetivos / Valoración breve

Parte hartzailea ■ Participante

Aurreikusitako parte hartzaile kopurua. ■ Número de personas destinatarias previstas	
Parte hartzaile kopurua ■ Número personas destinatarias	
Emakumezko kopurua ■ Número de mujeres	
Gizonezko kopurua ■ Número de hombres	
Programaren iraupena ■ Duración del programa	

Jarduera eta/edo kanpainaren komunikazioa ■ Comunicación de la actividad y/o campaña

Posta zerrendak edota e-buletinak ■ Mailing y/o boletín electrónico	
Euskarri fisikoak (esku-orriak, kartelak...) ■ Soporte físico (folletos, carteles...)	
Sare sozialak ■ Redes sociales	
Tokiko aldizkariak ■ Revistas locales	
Beste modu batez, zein? ■ Algún otro modo, ¿cuál?	

Euskararen erabileraren eta hiztunen aktibazioaren sustapena ■ Promoción de del uso del euskera y activación de hablantes

Parte-hartzaileen elkarreragina baloratu Valora la interacción entre las personas participantes	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

araba álava
foru aldundia diputación foral

Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko (III. ERANSKINA)

2026

Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO III)

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza

Nola bideratu da euskararen erabilerearen sustapena eta hiztunen aktibazioa? ■ ¿Cómo se ha llevado a cabo la promoción del uso del euskera y la activación de hablantes?

Zein oztopo edo gabezia sumatu duzue helburua lortzeko? ■ Dificultades o carencias para conseguir el objetivo.

Zer gertatu da arrakastatsu? ■ ¿Qué ha sido exitoso?
Zergatik? ■ ¿Por qué?

Atxikitu daiteke aparteko eranskin gisa, komenigarritzat jotzen den bestelako txosten, agiri, edo dokumentu osagarri, dagokion formatuan.

Adjuntar como anexo cualquier documento, informe o similar que se estime conveniente, en el formato que corresponda.

1.-

2.-

3.-

.....

Tokia ■ Lugar	Urtea ■ Año	Hila ■ Mes	Eguna ■ Día

(Ordezkiaren sinadura) ■ (Firma de la persona representante)

Orria ■ Hoja 2/2

Kuadrillen dirulaguntza eskaera, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak antolatu, garatu eta gauzatzeko (IV. ERANSKINA)

2026

araba
foru aldundia diputación foral

foru aldundia diputación foral

Solicitud de subvención a Cuadrillas para la organización, desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera (ANEXO IV)

IV. ERANSKINA¹ -.- JUSTIFIKAZIO KONTU ERRAZTUA ■ ANEXO IV- CUENTA JUSTIFICATIVA SIMPLIFICADA

Erakundearen izena ■ Nombre de la entidad

Arabako Lurralde Historikoan kuadrillek eta Trebiñuko Enklabeak 2025ean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta/edo kanpainak garatzeko eta gauzatzeko dirulaguntza deialdi publikoaren barruan jaso duen dirulaguntzari dagokionez,

En relación con la subvención concedida dentro de la convocatoria pública de subvenciones para el desarrollo y ejecución de actividades y/o campañas de promoción del uso del euskera promovidos por las Cuadrillas, ejercicio 2025 en el Territorio Histórico de Alava y el Enclave de Treviño.

D./D^a jaunak / andreak

adierazitako erakundearen ordezkarietan,

en representación de la entidad indicada,

ZIURTATZEN DU / CERTIFICA:

Jasotako dirulaguntzaren xedea bete dela, aipatutako datuak egiazkoak direla, jarduera eta/do kanpaina egiteko erabili dela dirulaguntza, eta ezarritako epean egin dela jarduera. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharra aitortu da erakundearen kontabilitatean. Gastuak beheko taulan zehazten dira.

Que se ha cumplido la finalidad de la subvención percibida, que los datos anteriormente relacionados son ciertos, que los mismos se han destinado al cumplimiento de la actividad y/o campaña realizada y que la misma se ha realizado dentro del plazo de ejecución concedido, acreditando además que el gasto realizado, que se relaciona a continuación, ha sido objeto de reconocimiento de la obligación en la contabilidad de la Entidad.

¹ Aurkitzen den jarduera eta/edo kanpaina bakoitzeko bete eranskin bat. Hemen ere eskuragarri: Deberá ser cumplimentado por cada actividad y/o campaña que se presente. Disponible en:

www.araba.eus eta www.euskaraba.eus

Euskaraz sozializatzeako udal eta kuadrillen dirulaguntzaren justifikazio kontu erraztua
(IV. ERANSKINA)



2026

Cuenta justificativa simplificada de la subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para socialización a través del euskera (ANEXO IV)

Faktura zk. eta jaulkipen data Nº factura y fecha de emisión	Jarduera eta/edo kanpainaren edo kanpainaren	Hornitzailea Proveedor	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa (1) Importe (1)	BEZ (2) IVA (2)	PFEZ (3) IRPF (3)	Garbia (1+2-3) Neto (1+2-3)	Guztira (1+2) Total (1+2)	Ordainketa eguna (hala badagokio) Fecha de pago (en su caso)

Aurkeztutako dokumentazioa jatorrizkoarekin bat datorrela, erakunde eskatzailearen esku dagoela eta Arabako Foru Aldundiaren esku utziko duela hala eskatzen zaionean.

Que la documentación presentada coincide con la original, que ésta obra en poder de la Entidad solicitante y que la pondrá a disposición de la Diputación Foral de Alava cuando así sea requerido.

Honako dirulaguntza, laguntza edota diru sarrera hauek lortu direla xede bererako:

Que para la misma finalidad se han obtenido las siguientes subvenciones, ayudas y/o ingresos.

Erakundea ■ Entidad	Zenbatekoa ■ Importe

Ez dela beste inongo dirulaguntza, laguntza edo diru sarrerarik jaso.

No se ha obtenido ninguna otra subvención, ayuda o ingreso.

Orria ■ Hoja 2/3


Euskaraz sozializatzeke udal eta kuadrillen dirulaguntzaren justifikazio kontu erraztua
(IV. ERANSKINA) 2026
 Cuenta justificativa simplificada de la subvención a Ayuntamientos y Cuadrillas para socialización a través del euskera (ANEXO IV)

Beraz, honakoa izan da sarrera eta gastuen arteko balantzea: Por tanto, el balance de ingresos y gastos ha sido el siguiente:

Gastuak ■ Gastos	Sarrerak ■ Ingresos
	(Norberaren ekarpena, besterena, kuotak...) (Aportación propia, de otras entidades, cuotas...)
Guztira ■ Total	Guztira ■ Total

.....

(Sinadura, tokia eta data ■ Firma, lugar y fecha)